

Irakurketa eta irakurle literarioari buruzko obra dugu orain gutxi zendu den Pedro C. Cerrillo UCLMko irakasle katedradunaren lan hau, bere ibilbide akademiko oparoaren pentsaera laburtzen duena. Irakurtzea ez da hitzak, kode idatziak, deszifratzea bakarrik; irakurleak hitzak interpretatu eta bere bizitzaren, bere esperientziarekin erlazionatzeko gai izan behar du. Eta irakurle prozesu hori da, hain zuzen, liburu honetan aztertzen dena. Duela 40 urte baino gehiago, Damaso Alonsok zioen bezala, irakurri behar da “XXI. mendeko gizakiak inteligentzia landua eta buru argia izan ditzan, eta besteeiko harremanetarako hizkera erabilgarri eta eraginkorra.”

Cerrillo irakasleak ezagutzarako edo informaziorako irakurketak bereizten ditu, alegia, azaleko irakurketa edo irakurritakoa interpretatzeko eta horren inguruan gogoeta egiteko modukoa; eta azken hau erdiesteko nola behar dugun edo lagungarria gerta dakigukeen literaturaren irakurketa.

Liburua hamar ataletan banaturik dago eta lehen irakurketak, Haur eta Gazte Literaturaren garrantzia irakurle literarioaren formazioan, kanona, eskolako irakurketak, ahozko literatura eta antzeko atalen bidez gaien sakontzeaz gain egileak irakurketaren inguruan dituen kezak eta beldurrak ageri dira. Badira, teoria eta azalpenen artean, gaur egungo hezkuntza sistemari eginiko kritikak; bai eta argitaratzen diren hainbat eta hainbat lanen kalitateari ere. Haurrentzako obrak direnez gero kalitate literario minimoa duten lanen kasua, esaterako.

Ataletan zehar irakurketaz, irakurketa literarioaz eta irakur zale literarioaz ari zaigu, kontzeptu ezberdin hauek askotan nahastu egiten direlako eta egungo hezkuntza sistematan arazoak sortarazi. Adibidez, Haur eta Gazte Literaturaren garrantzia irakurle literarioaren formazioan ari denean Cerrillok aipatu egiten du irakasle askok ikasleen gustuak betetzen dituzten liburuen alde egiten dutela idazlan klasikoek irakurtzeko orduan arazoak sortarazten dizkietelako ikasleei. Jakina, horren aurretik baina, idazlan klasikoaren pisua, balioa eta aberastasunaz aritu zaigu egilea. Baita eta kanonaren inguruaz, erreferentziako obra batzuk izatearen garrantziaz. Cerrillok dioenez kanona zerbait aldakorra da, irakurle anitzari eskainitakoa; eta kanonaren baitan guztiz oinarritzakoa da eskolako kanona izatea. Eskolan irakurri beharreko obrak kanona “eztabaida edo solasaldi luze eta sakon baten emaitza” izan behar da, idazlan klasikoak eta berriagoak onartzen dituen corpusa, baina beti ere kalitatekoa. Kanon horrek, gainera aldakorra behar du, noizean behin berriztu egin beharrekoa eta ikaslearen formazio literarioan lagungarria suertatu.

Irakaskuntzan ari garenontzat, eta bereziki pertsona kritikoak, beren iritziak sortarazten dituzten pertsonak hezi nahi ditugunontzat argigarriak dira liburuan ageri diren hainbat atal. Nola lortu testu ezberdinak interpretatzen eta aztertzen dakizkiten

pertsonak, nola hurbildu testu ezberdin horien irakurketara. Eta prozesua, era naturalean eginez gero, etxean hasten da, haurra liburuetara hurbildu aurretik, txiki txikitatik lo kanta, jolas, aho-korapilo edo igarkizunen bidez. Ahozko literaturatik, sehaskatik. Jakina, hori gertatzen ez den kasuetan eskolari dagokio ardura hori ere hartzea, baina irakurleak lortzea, pertsona kritikoak garatzea, gizarte osoari dagokio. Cerrilloren lan honetan batez ere eskolan egin beharreko lanaz ari zaigu, baina, zalantzarik gabe, irakasleez gain gizarteko gainerako kideen inplikazioaren emaitza izan behar dira irakurle literarioak.

Adierazgarria da, bestalde, liburu amaieran egiten den eskola irakurketarako kanon proposamenean, euskarazko liburu bat ere ez egotea ageri diren 125 liburuen artean. Hori ikusita are handiago bilakatzen da honelako estudioen beharra eta gero aplikazioa gure artean.

Paloma Rodríguez Minambres